

PIARRESEK, bertan : kan kan kan

MARIANAK Aintzina, sar zaitze sar

Piarres Egun on Mariana

Mariana Bai zuri ere Piarres, zer diozu.

Piarres ongi, ongi, pausa bat ederra eginik nabilta

Mariana ni baino hobeki zira beraz, baxerak eta sukalde zola garbi eta holaxet joan zait denbora, eta orai ikusten duzun bezala josten hasia naiz.

Piarres ederki, ederki. Senara ez duzu etxear ?

Mariana ez, Mattin bazkal ondoan ote sega harturik joana da larrekirat, behien ihaurkia arras ttikitua dugu.

Piarres aro ona du larreko, ihintza handia bazen goizean eta otea gozo izanen du.

Mariana hobe segurki, jar zaitze, kafe bat edanen duzu.

Piarres zerbaki ez ! badakit kafe ona egiten duzula, Mariana

Mariana horiek hola zerk ekartzen zaitu ?

Piarres eske nabila, arto txar horien bihitzerat es erantza dut gizon bat eta saski pare baten beharra nuke biharko.

Mariana to.. Errekako Tomas... sar hadi Tomas, egiten duk gu bezala !

Tomas egun on, hor zirela Piarres, badut zuri hitz bat erran nahia

Piarres erran, erran gusturik edeterean

Tomas erosi daukitzutan hamar ardi zaharrak neure sorrerat eremaitan, ez dauzut erran, ongi ziren bi, bi erien kontra trukatzear

Piarres ez diat hiri ardi eririk sakatu, hi hauek eri arazi dituk, menturaz

Tomas tratua egitean, ardiak ongi ziren eta pikuratu ditudalarik, baziren bika kasik hilak. Ez nitian bi ardi haiek nik eresia !

Piarres Ah! ah! ah! hara! pikura! eta zer pikura ! ?

Tomas A.D.E.3 Vitaminak

Piarres ah! zer uste duk nere ardi xaharrek, alfabetak ikasi nahiko dutela adin hortan!

Tomas Pixtolet zu !

Mariana xo, xo,! ez ahal zirezte ene etxean kalapitan hasiko, desohorengariak
alaina ! Edan kafea eta ixil zaitezte

Tomas errex duzu ixilik egoitea horelako gizon faltsu batekin !

Piarres zagozte ixilik, kontrarimenduak trenputxartuko nau !

Mariana aski kalapita ! funts gabe hortarik aski !

Tomas zerria hil berria duzu naski, Mariana !

Mariana bai, joan den astean. Zendako ?

Tomas lukinka sail eder bat ikusten baitut, hortxetan, xukatzen hari

Piarres ez naiz ongi, ez naiz ongi ez naiz ah, ah.....

~~Rixxxx~~ (eta gure Piarres erortzen da bere kaderarekin gibel alderat ezagutzarik
gabe.....)

Mariana Hara, hara errana zian, kalapitak trenputzartzen zuela. Zer egin behar dugu?

Tomas Pasatuko zaio

Mariana adizak ! habil medikuaren deitzerat, laster, telefonazak kartiereko
kabinatik, ni baŋoa senarrari oiĥu egiterat, sagardi gibleko sorrotik
adituko naik

(sukaldea ustu bezain laster gure gizona xutitzen da eta kadera bat
harturik lukinka andana bat ezartzen lepo itzulian eta gibleko atetik
husten lekuak !)

Mariana zer pasatzen da ! gizon debru horrek zer dik komedia egin !

Tomas etortzen da - Medikua laster hemen da !

Mariana badiat belderra debaldetan eginen duen itzulia, gure gizonak lekuak
ustuak ditik !

Tomas debru porkeria, faltsukeria egin dik, hain segur !

Mariana bainan, neure lukinken parte bat falta dut !

Tomas uste duzu, segur zira ?

Mariana bai, bai, segur, makil hori burutik buru hetea zen

Tomas orduan, Piarresek joan ditu !

Mariana ez duk duderik, ago hemen, inkas berriz jin baledi, ni jandarmen deitzerat
joanen nauk segidan,ai urde zikina ez duk afere hola pasatuko.

2
3
Tomas Ez noiz jaritzen, beti hola ari da Piarres, ahal goziak bere sakelarat,
bertzeak nihundik ahal balin badu ixorra. Berrikitan nihaur ardiekin, jaz,
bertzek kolpatu herbi bat bildu zuen, orai lukinkak ebatsi ditu eta zonbat
holako egintza txar'ez du egiten bere bizian ; fontsean herri guzietan
badira horrelako gizon "maitagarriak", bainan zorrak beharko ditu egun
batez, beharba pagatu lur huntan, ez bada bestean, bed ren.

(Mariana berriz itzultzen da etxerat bi jandarmekilan)

BENAT Jandarma : kalma zaite emaztekoa, kalma, ez du balio hola zainak altxatzea,
gu holako gertakarietzat eginak gira

ADRIEN Jandarma : on va mener une enquête

Mariana anqueta gure etxean ! jaingo maite gaixoa, zer behar ginuen ikusi ! Hor
zira Tomas, lekukoaren egiteko

Tomas bai, ~~xxxx~~ gogotik lukinka jale horren kontra

Benat zu, Tomas joanen zira Piarresen etxerat, erranen dakozu etortzeko huneraino
nere partez, besteraz gostako zake bietan !

Tomas bai bai.. berehala banoa, jauna, eta dator kuxian

Benat Mariana, hasiko dugu gure hizketa.

Adrien Dans le cadre de l'article 234 du code pénal qui autorise toutes questions
qui concernent les cochons transformés en saucisse

Benat gure galderi egia erran Mariana

Mariana bai

Benat zure izena eta adinaren dako behar dugu carte d'identitea ikusi

Mariana hemen dut tietan huntan

Benat erakuts. Bon ederki, zuen xerria noiz sortua zen, ?

Mariana ez dakit, ez dut gogoan, bainan goaita, zerri horren ama estalarazi
ginuen eg na markatua dut paperean

Benat estalz aldi hortarik galditu zenea ernari

Mariana Bai, bai segurki, ekainaren 5 1980 larunbatarekin

Benat bon, ederki, eta zer aketz arraza eman zinakoten zerri amari ?

Mariana ez naiz zuzen erroitzen, bainan bain segur, Anglesa

Adrien Ou est ce qui ne vont pas chercher des Basques !

Benat berraz umeak sortu ziren Martxoaren 5 ean !

Mariana martxoaren 5 ean, nun ibilki zara, nola egiten ditutzu kontuak

Benat ez duteia behiak eta emazteak bezala 9 hilabete ekartzen ?

Mariana ha, ha, ha.... hortan dugu gure zaintzalea.. ez 3 hilabete eta hogoi egun, eta badute aski ala ez !

Adrien trois mois et 20 jours, quelle chance !

Benat berraz umeak sortu ziren urriaren ondarean

Mariana bai holako zerbait, zer ditu zure lagunak arrazoin ergel horriek

Benat eta zonbat ume egin zituen ?

Mariana 14 ume eta denak azkarak

Adrien Quatorze et punaise uelle famille ! moi qui croyait que la truie faisait un ou deux petits !

(orduan sartzen da medikua)

KAIET egun on jaun andereak, zer pasatzen da, norbaitek norait hil du edo zer ?

Mariana ez, ez ! konduen gaineko ez ginuke besterik falta !

Benat jar zaite jaun medikua, ukanen dut oraino zure beharra!

Kaiet bainan deitu naute, berehala etortzeko etxe huntarat, bazela gizon bat ezagutza galdua, hatsa ezin hartuz eta nik dakita zer !

Adrien au fait, j'ai de la famille en Angleterre, Mariana, quand vous parliez que vous aviez été avec votre truie en Angleterre, dans quelle région avez vous été ?

Benat Non ! mon pauvre Adrien, Anglesa c'est une race de Verrat !

Kaiet zero zer, ez dut deus konprenitzen, ala denak burutik eri zaizte ?

Mariana ostixon, Sordaxiloko Piarres sukalde huntan trenputxartu zaku, zure bilan ginen denboran lukinka alde bat ebatsi du ; bi jandarmak hortako dira hemen inkesta egiten ari

Kaiet ez dut ontsa ikusten zer komeditan ari zirezten. Banos etxe huntarik berehala

Benat ez, ez izaren dugu zure beharra eta ordea emaiten dautzut goaitatzeko
hemen, oran erdi bat.

Kaiet ordea balin bada, egonen naiz

Adrien revenons à nos moutons

Mariana ez, ez badugu nun zer egin zeriekilan ardiatarat joan gabe

Benat hamalau ume sortu ziren urriaren ondarean, denak azkarrek eta horrietarik
baño atxiki duzie etxean gizenarazteko

Mariana bai

Benat eta zer eman diozute jaterat, guti gora behera

Mariana Ixurkin, lursagar axal, arto irrin, betaraua, aza ostoa ; eta holako, baina
zendako galde horiek zer ikusteko dute gure lukinkarekila ?

Benat gu eskolatuak gira ainitz eta zerri horren bizia eta arraza jakinean,
aterako dugu, hiltzean zer pisu zuen eta gero matematikaz zombat metra
lukinka ardiki dituen

Kaiet oh, oh ez naen holakorik amestuko ere, ez banu zure ahotik aditu !

Benat eta beti ontsa joan da eritasunik gabe

Mariana izan zuen Panari abiadura bat baina laster sendatu zen

Adrien Grr! le pauvre oiseau, ma femme aussi a un canari en cage et croyez moi que
ça me ferait de la peine s'il se faisait manger par un cochon

Benat behar zake barkatu, sortzez Baionakoa da, euskara dena konprenitzen d
baina ez du aise mintzatzen oraino

Kaiet bai, ikusten dut, ikusten dut !

Benat orai, ixiltasun poxi bat beharko dut ene konduen egiteko.....

..... hon zerri horrek 185Kg zituen joan den astean,
hiltzeko mementoan, eta pisu hortako zerri batek, aterako ditu.....

..... 22 M eta erdi lukinka... inguru hortan, Mariana ala ez...?

Mariana ez dakit, ez dakit ez naiz sekulan nehurtzen ari izan...

Benat hi Adrien, ikustzak zombat gelditzen den hoga hortan !

Adrien d'accord j'y vais

(orduaz sartzen dira Piarres eta Tomas)

Piarres hara hemen gira, egun on jaunak, zer dugu krakada egin behar denek
elkarrekin, ho !

Piarres nik ez du zure lukinkarik hunki

Tomas nok egin ditik bera ? ba nan beharko duk aitortu jandarmekin, ez duk irriarik eginen

Piarres ikusten dutan jandarma horri ari da lukinka ederrenean hautatzen, eta ni ere komit naiz horien jaterat

Tomas izanen duzu bertze triako minik laster, ni beldur naiz

Piarres izpiritua trankil dut eta eskuak garbi, orduan zendako kexa !

Benat Piarres, lehenik, zure izena ?

Piarres Piarres Ogihaundi

Benat eta beti gose !

Benat noiz sortua ?

Piarres aspaldi, jauna, aspaldi !

Benat sortzeko eguna ?

Piarres ~~xxxxxx~~ haizea eta hotza, jauna, omen !

Benat erran zenbat garen eguna zen eta zoin ilabete ?

Piarres ah ! ni klasa 32 an !

Benat ez dautzut galdetzen, noiz joan ziren zerbitzurat !

Piarres eta l'Armée Française s'il vous plait

Benat paperak hor ditutzu ?

Piarres Mariana, ekar kaseta xahar puxka bat, paper galdeka ari da hau hemen !

Benat ez balin baduzu gure galdeeri ihardetsiko, presondegian sartzen zaitugu

~~xxxxxxx~~ segidan, orduan irriak sartuko dira beharba. Beraz noiz sortua zira ?

Piarres Puñetas ! neure ama zenak bazakien !

Benat zinez ez dakizu zure sor eguna ?

Piarres erran dautzut ama zenak bazakiela !

Kaiet beharko dugu galdegin sortua den herriko etxean, han badakite

Benat nun sortua zira ?

Piarres hor nunba't, Uztaritze eta Larroso artean !

Benat Larroso edo Uztaritze ! ez da berdin gero !

Piarres Larroso Uztaritzerat joan den bide hortan sortua naiz

Benat bidean !

- Piarres bai, gaixo amazena arto jorrazterat joan zelarik larrosotik Uztaritzeko
landa batetarat eman ninduen mundurat, gaixo ama !
- Adrien du lukinke il y en a 17 m 20
- Benat ah ! beraz 5 metra, nunbeit han, suntsitu dira !
- Mariana ikusten duzie, ez nuela gezurra erraiten !
- Benat bai ikusten dugu ; zuk, Piarres, zer nahi zinuene etxe huntarik !
- Piarres saski pare baten galdez etorria nintzen
- Benat kafea edatean erortzen zira en syncope !
- Piarres mariana aditzen duzu ! guk kafea edan eta hunek kopak manatzen dauzkitzu !
- Mariana ez duzie deus ukanen, sobera kexu naiz !
- Benat zer arrazoien duzu hola erortzeko en syncope !
- Piarres bost kopa, Mariana, gizon hau kexaarazi gabe !
- Benat ez dut hori galdatzen, galdatzen dut zendako trenpüttxartzen ziren !
- Piarres Tomasek kalapita xerkatu nau eta holako kasuetan neure bihotza pilpiran
hasten da, ez banaiz ixiltasunean egoiten lurrerat noa, hori da gertatu
dion bezala en "bost kop"
- Mariana hori gezurra duk, gezurra bera bezain handia !
- Piarres egia, egia da, ez dut lehenbiziko aldia erortzen naizeka, gisa hortan !
- Benat zuk, Tomas zer diozu ez duzu deusik erraiten !
- Tomas zer duzu nahi erraitez, nik ikusi dut flakatzen ! Bainan ez dut sinesten
deusik, bere sortze adinik ez dakielako eta gaineratikoetan.
- Benat kalapita xerkatu dakizu ?
- Tomas ez du egia, erran dakot, bi ardi sakatu dauzkit, ardi onak erosi ondutan !
- Piarres he, he, ! errakozu alfabetak nahi zinakola erakutsi eta adin hortan lan horri
lotu baino lehen nahi izan dute bi ardi horiek begiak hetsi betiko. Amen !
- Benat Ezagutza galdua zinuene eta gero zer gertatu da, ?
- Piarres izpiritua berriz etorri zaitalarik begiak ideki ditut eta orduan ikusi dut
gatu buztan arro bat hortxet horrat joaiki
- Benat eta ze zuen deus berekila ?
- Piarres zer nahi duzu erran ?
- Benat lukinka edo holako zerbait, araz !

- Piarres iduritu zait halako itzal bat, bainan ez nintzen oraino biziki ongi atzarria
- Adrien Ah! le chat c'est un Anora !
- Piarres ez diat erran gatu joan zela han ora, erran diat zela joan hortxet horrat!
- Tomas ez dituk paja berean !
- Benat iratzartu zira, Tomas eta Marianak sukaldea ustu bezain laster bost metra lukinka harturik tokia ustu duzu lehen bai lehen ! aia ez ?
- Piarres bai tokia ustu bainan eskuak hutsik !
- Mariana gezurra ! gezurra !
- Piarres egia ! agia !
- Tomas ez da izitean ahak egia eta gezurra elgarrekin !
- Kaiet ho! hori ontsa errana duk !
- Benat Zer nahi dela ! Kaiet medikuak mihatuko hau !
- Piarres entsea bedi ni unkitzerat !
- Benat lehenik alkol testa eginen diauk
- Piarres baduk bolta bat barur naizela !
- Benat gure tresnak erranen dik hori, Piarres, ekarrak, Adrien, makina
- Adrien de suite
- Kaiet zendako egiten duzie alkol testa hori ?
- Benat ikusi behar dugu zer arrazoin zuen flakatzeko eta ebatsi balin badu lukinkarik ez duen egitate hori mozkortasunean egin, kondenamenduak kasu hortan ttikiagokoak izanen ditu
- Adrien voila le ballon
- Benat presta Piarres, hemen eginen duzu haize... allez, allez oufa zazu ; oinon, oinon, bon ederki da aski orai, aski dena sartarazi gabe. Edana duzu pixka bat jatean Piarres ?
- Piarres pixka bat ? ez naiz hiritar horiek bezala ! baso erdi bat arno eta taxa bat urekin egiten
- Benat bainan legearen arabera sobera edana duzu
- Piarres entzun ? nik ez dut legearentzat edaten, nik edanak ez ditutzu zuk pagatzen, eta gainerat, nik edanez jels bazira, badakizu zer duzun egiteko !
- Benat ez

Piarres landa mahastia eta joko lanean, hara !

Benat errazu Kaiet zer egiten ahal dugu ezagutzeko lukinkarik jana duen ez ?

9

Kaiet bon, hiru gauza egiten ahal dira :

lehenbizikoa : estomakaren lanean hartzeko moldez entzen eta segituz,

ateratzen ahal dugu zer jana duen, bistan dena da enganatzen

ahal girakasu hortan

bigarena : berak egiten duen hungarri pixka bat analizatuz ez da tronpatzerik

izanen

eta hirugarena : estomakan duena goiti botaarazi.

Tomas memento txarra heldu da zuretzat, nahiago dut neure tokian izan zurean baino

Kaiet atorra ken Piarres eta eman zaite luze luzea mahain hunen gainean

Piarres banoa etxerat lan egiterat

Benat hemen egonen zira eta guk erranak egiten, ez utz eskapatzerat, atxeman eta atxik

(jandarmak eta Tomas lotzen dira Piarreseri eta etzaten dute sukaldeko mahain gainean)

Kaiet atorraren hotoinak laxa, behardakot tresna hunekin tripa entzun.

hatsa har finki, gero sudura tapa, ez balinbadu egingo, zuk egizu Tomas

Kaiet Gizon hunen estomakaren lanean hartzeko moldea entzunez, patata arainarekila jana duke

Benat zure erranek ez dauku inkesta aintzinara ten

Kaiet beharba tronpatzen naiz !

Benat ez da makurrik, Mariana ekazu oge azpi o untzia

Mariana baiman zendako duzu untzi hori

Benat hortxetan sulairdan egiten ditu gizon hunek bere beharrak

Kaiet lan txarra neretako !

Piarres dorpeena neretzat !

Tomas irrigariena neretzat. Denek izanen dugu nun zer egin

Piarres inkesta serioa da ez irririk !

Mariana hara untzia

Benat eman neri, ta zu Piarres zeto xoko huntarat, planta zite untzi honen
gainean eta baditutzu hiru minuta behar denaren egiteko

Piarres erran zer...?

Benat eta K. Kaka

Piarres ederki da entsegatuko naiz

Benat zure onetan, Beraz beharko dugu hiru minuta goaitatu

(eta orduan sartzen da etxeko nagusia , Mattin)

Mattin zer, zer gertatzen da ?

Mariana sukaldetik ebatsi dute

Mattin ebatsi dute nor, zer ?

Adrien le congélateur

Mattin ez egin irririk nerekin, memento huntan bestenaz denak kanporat igortzen
zaituztet

Mariana bost metra lukinka

Mattin ez dik hase txarra egin behar, nere lukinkekin, oraiko egunean jendea
zernahiri lotzen duk, ez ginuen bertze beharrik, hainbeste gosta zerritik
parte bat ebasteko

Mariana gizon hauk hartako dira hemen, inkesta egiten dute ohoinaren arrapatzeko

Mattin segur jandarmak bezain habila dela gure ohoina

Benat berriz irakurriko dugu idatzia duguna gertakari hoien gainean. Mariana
Etxeberri, 37 urte, Larrosen sortua diozu. Etxean hil duzien xerri horen
ama estalaazia zintzen ekainaren 5 ean 1980 ean Aketz Anglesetik.

Mattin ez Anglesetik Mariana, Landrasatik

Adrien ça commence, ça change les données

Benat zen dako ?

Adrien c'est déjà beaucoup plus gras

Benat ez dik diferentzia handirik ekartzen ahal 2 % guti gora behera !

Mattin Mariana, behatu duzu gaxikutxari ?

Mariana ez, ez ahal da han ere izan, noa ikusterat !

Benat berz 14 ume sortu ziren Urriaren ondarean eta...

Mattin xo, xo ez duzie entzun..?

Densk ez, ez, zer aditu duzu ?

Mattin hortik sulairda zoketik balako burunka ilun bat

Benat tronpatzen zira, hegazkiña ditake

Mattin ez, ez uzker baten pare zen

Benat zuen zerria hiltzeko mementoan...

(Mariana sartzen da sukaldarat)

Mariana ez da deus eskas gaxitegian

Mattin hobe segurki, banoa begi kolpe baten emaiterat xoko huntarat, entzun dutan arrabots horrek ez daut segurtamen haundirik emaiten.

Benat ez du balio, egon gurekin

Tomas utz berak egingo duenaren egiterat

Mattin hor, hor, hor... da ohoia, ari da, ari da, sobera hasea ditake.. iziarazi nau ! lotu, lotu, begira, begira, hemen da, atxeman eta esteka zangoak eta eskuak

Piarres ez izi Mattin, ni nauk, Piarres pusa eta pusa...!

Mattin ah bon! ah bon!, gure etxean hase eta kakin, baduk hik hausartzia, heldu nauk kenduko daiait hire onbaia

Benat ez, egon hemen, behar dugu analizatu eginen duen

Mattin ah zer kopeta, xuti hadi eta parti hire onetan...

Piarres hik errana egin nezakek ez balitz hor bertze kasketadunik

Adrien du papier Hygiénique, Mariana, s'il vous plait

Piarres ez du balio, Mariana

Mariana zendako ?

Piarres ez baitut egiten ahak izan

Benat zer ? hainbeste denbora pasatu eta, untzia hutsa, haurra baino gutiago zira beraz

Piarres ez gutiago ez gehiago, berdin horra ! galtzak altxatu eta heldu naiz zuen ganat

Benat etor eta beti berdin asto gira, ez dakigu Piarres dugun gure lukinka ebaslea eta jalea

Kaiet beharko zako jana duena ahotik botaarazi

Adrien on va encore rigoler

Kaïet bi jandarrak atxiki duzue finki eta nik bizkarrean tapa, tapa, joko dut.
 zuk Mariana egonen zira untzi batekin Piarresen aintzinean. Berraz atxeman
 zazue eta atxik. Pan, pan, pan, pan

Mariana ez du deus egiten

- Mattin goaita, zintzura luzea du, Mariana

Kaïet batek sudurra tapatu beharko dio

Mattin nik, nik hori, hori lan pollita

Piarres ai, ai min.. minartzen dut

Mattin minartzen duk, xerriari bezala bi kroxet eman diezazkiaket sudurean.

Kaïet ez du deusik botatzen, beharko dugu adana ondo bat bezal daldaratu

(~~gertatzen~~ gero eta gehiago inarrosten dute eta gure gizona berriz
trenputxartzen da)

Mariana ona duk, ona duk zerbaiten jakiteko !

Kaïet Mariana ekarazu koñak edo zerbait edari

Mariana urde zikina ez likek merezi !

Kaïet ez. baina memento txar huntan

Mariana hora, nun duzun eta ez eman dena edaterat

(hor ari direlarik bere baitarat jinarazi beharrez Piarres, etxeko
nagusiak, leiotik begiratzuz dio..)

Mattin begira hemen, Piarrese xakurra, lukinka andana batekin ibilki arat
eta hunat

(ez bat ez bia xutitzen da Piarres erranez :

Piarres urde zikina, alta, ontsa gordeak nituen ba

Benat beraz zuk ebatsiak ditutzu ?

Piarres bai, baina orai ez dira, ez dira nehorandako on, zer pena !

Mariana ikusten duzie zer erraiten nuen !

Tomas baduzu ohointzako alderdia, beharko duzu oraikoan zerbait pagatu !

Adrien c'est à nous à condamner

- Mattin jandarmek emanen dutena beharke duzu pasatu
- Piarres bai eginen dut
- Benat holako ebaste batentzat ez dut biziki punitzen ahal, horra zer izanen duen pagatzeko : Mariana eta Mattineri emanen diozute oilasko bat, Kaiet Medikuari, bi oilasko, eta guri hiru oilasko
- Tomas hauxe kondanamendu bitxia
- Piarres badik aski kondanamendu horrek ! zatozte nere ondorat, mediku, jandarmak eta Mattin ! hiri Mattin oilasko bat ekarriko diat, zuri jaun medikua hementzeko hau biak emaiten daukitzut, erdaraz deitzen dituzte : deux poulets, hola bost oilasko irabazten ditut. Banoa etxerat. Bihar arte eta pasa gau on !
- Mattin habil hemendik eta ez ager sukalde huntarat hire onetan ! Zor dukan oilaskoa atxik hire familiaren dako !
- Piarres Milesker eta beste bat arte.
- Tomas Piarresek ongi bukatzen du bere kondena
- Adrien Vous trouvez avec tous ces poulets qu'il nous doit.
- Kaiet Abilki, zuek biak, errabili zaituzte/ eta horrek zor dituenak sudur azpitik pasatuko dira !
- Mariana hori segur !
- Benat edarki izoratzen gaitu, gu biak emanez Medikuari ! Gizon hori axerri habila da
- Kaiet Banoa etxerat, oilaskoaren esperantza ttipiarekin .
- Mariana Ez duk balio iluzionik egitea ez duzu deus ukanen Piarresen ganik !
- Kaiet Piarresek ez badu pagatzen Jainkoak eginen hau beharba ! Ikus arte eta izan ontsa.
- Benat Gizon hori gu bi jandarmaz trufatu da.
- Mariana Ez da dudarik
- Mattin Ez duzi trufa gaixtoa. Ez baduzi haundiagorik entzuten.
- Benat Goiz edo berant, bere oto zaharrarekin badoalarik merkaturat, geldi arraziko dugu eta zerbait huts kausitzen badugu, beharko du ongi pagatu ! irria eta trufak sartuko zaizko.

Adrien Paf! Amenda

Tomas hori nork nahi egin dezake, ez da eskola duna behar baitezpada.

Benat Jende onak utziko zaituztegu, joan gira, badugu lana burutik gaindi.
Bihar arte, pasazue atxalde on bat !

Adrien Au revoir et à la prochaine!

Mattin-Mariana Bai ez adiorik

Tomas Zinez ez dira gizon horiek nihun ez direnak

Mariana Egia erran, hala da gero

Mattin Kaskoin horri, karrika garbitzeko hobe litake.

(eta berriz borta idekitzen da eta Piarres agertzen da)

Piarres Ez nie mekatuan, enganatuko. ha, ha!

Errazu Mariana saskiak prestatzen ahal dituzi ?

Mariana Bai, Bai ez dituk meresi bainera gure erlisioneak ez baitu hola gobernatzea
galdegiten Mattinek ekarriko daizki.

Mattin Berriz ekartzekotan gibelerat

Piarres Ez ukan beldurik
(eta biak joan dira saskien bila)

Tomas Gizon horren kopeta Mariana! Zer pentsatzen duzu ?

Mariana Zer nahi duk, Jainkoak egin hoi ere bertzeak bezala

Tomas Bai, bai

(Mattin etortzen da sukalderat)

Mattin Ez dela jandarmen aintzinean gorritu gure Piarres !

Tomas Gorritu ! trufatu egin ditu gainerat !

Mariana Eta zer nahi zinguen Tomas ?

Tomas Zerria hila dugu, nahi nuke lukinka sartzeko makina presta.

Xonko